

Izu-izua
JOKIN DE PEDRO
Elkar, Donostia, 2012

14 +

«Izu-izua» ipuina, aldiz, egileak *Psycho* filmari eginiko keinuez eta aipamen zuzenez beterik dago. Film ezagunaren giroa eta egoera islaturik ikus dezakegu Euskal Herriko bazter batean, gizon bat etxe nahiko abandonatuan bere amarekin, edo haren espirituarekin... eta «Sukaldari baten istorioa» liburuari amaiera ematen dion azken ipuinean, aldiz, izua egoera aldrebesekin nahasirik ageriko zaigu.


Generoak eskatzen duen bezala, Jokin de Pedrok irakurlea harritu egiten du amaiera bitxi eta ustekabekoa eskainiz, norberaren beldur eta mamuei eginiko keinu horien ondoren geure buruaz ere irribarre egin dezagun, hori bai, izua sentitu ondoren.

Xabier Etxaniz Erle

Misterio eta ikara

Izenburuak iradoki bezala, misterio, beldur, ukitu beltzeko liburu baten aurrean gaude. Hiru istoriok osatzen dute liburua eta bigarrena dugu liburuari izenburua ematen diona.

Jokin de Pedrok aurrekoetan ere erakutsi izan du istorioak kontatzeko duen iaiotasuna eta, oraingoan, misterioa eta ikara duten istorio hauetan, gauza bera egiten du. Liburuko lehen ipuinak, «Beso baten istorioa», bi ezezagun ditu protagonista; jai batean elkarren ondoan eseri eta ipuinak kontatuko dizkiote elkarri. Ipuineko narratzaileak, lehen pertsonan kontaturiko istorioa baita, auto-stop egiten besoa galdu zuen lagun baten kontua aipatuko dio ezezagunari, eta honek beso baten istorioa esango dio; ihesaldi batean bi preso lotzen zituzten eskuburdinak hautsi beharrean, besoa moztu zuen lagunarena. Irakurleak egoeraren tentsioa eta larritasuna senti dezake Jokin de Pedroren kontakizunean: «Garbi dago ezin dutena ihesean jarraitu [...] hor ibili dira eginahalak egiten, tira eta bultza, baina harri astunek ez dute amore ematen, zirkinik ere ez. Zer egin? Orduan igitaiari erreparatu diote: eskuburdinak mozteko gai ez den arren, haragian erraz barnera daiteke».



Larunbatean Bukowskin
JOHN ANDUEZA
Elkar, Donostia, 2012

Rock and love

Hauxe da John (edo Jon) Anduezaren gazte -literaturako lehen lana eta, azalean ageri den Lander Ayllónen irudian ikus daitekeen bezala, gaur egungo gazte moderno edo gazte tribuen inguruko istorioa dela esan genezake. Zita bat dugu izenburua, eta bi paratestu horiek (azaleko irudiak eta izenburuak) irakurlea erakartzeko eginak daudela ematen dute. Barneko orrietan murgiltzean, berriz, gazte horien mundua islatzeko apustua ikusten da; gazte hizkera, beren egunerokoa istorioak, mundua beren ikuspegitik kontatu nahi izatea... hots, irakurle gaztea identifikatua senti dadin eginiko lana.

Anduezaren lehen lan honek ikasturte-hasiera batekin ekiten dio kontakizunari: «Irailak zazpi. Goizeko bederatziak laurden gutxi. Xato autobusetik jaitsi da, erdi lotan, aharrausika. Aitor Bergaretxe deitzen da, baina jaioberritan amamak sententzia harrigarria bota zion:

-Itsusi amorratua zara! Satorra ematen duzu!».

Eta ikus daitekeen bezala, politikoki zuzenetik ihes eginez ekiten dio egileak narrazioari. Xato dugu, beraz, istorioaren protagonista nagusia, eta haren egunerokoan jazotzen direnak biltzen


dira nobelan zehar, eta horien guztien artean nabarmentzeko modukoa da neska eder batekin eta ezkutuan eginiko grabazio baten ondorioz gertatutakoekin erlazionaturikoak. Horrek, Nereak jasandako erasoak, markatuko du neurri handi batean liburuaren bigarren zatia. Lehena egunerokoak kontatzera eta egoeren deskribapenera mugatzen den neurrian, liburuak bestelako erritmoa eta jakin-mina sorrarazten du nesken dutxan eginiko grabazioaren ondorioz, eta Xatok bi neskarekin, Pipi eta Nerearekin mantentzen duen harremana dela eta.

Larunbatean Bukowskin nobela honek gorabehera handiak ditu, gazteen hizkera eta egunerokoa islatzen ditu eta kapituluen egiturak, ugari eta laburrak, laguntzen du irakurketa azkarra egiten; gazteen interesak eta kontuak azaltzen ditu eta narrazioan elkarrizketak pisu handia du, bizitasun handia ematen dio testuari, eta hori kapituluen izenburuetan ere ikus daiteke: «Esaiozu euriari», «Marraketx fuxion», «Gros and roll», «Xato's song»,...; baina, bestalde, argumentua nahiko sinplea da, aurreikus daitekeena: pertsonaien garapen urria, ez da ikusten nobelak aurrera egin ahala aldaketarik haiengan; eta amaiera, zoriontsua, ez dagokio –nire ustez- nobelaren tonuari.

Edozein modutan azkar eta di-da batean irakurtzen den nobela entretenigarria dugu Anduezaren lan hau, ongi idatzia eta irakurle gazteek gustura irakurriko dutena.

Xabier Etxaniz Erle

12 +



Marta ispiluaren aurrean
TERESA CALO
Itzultzailea: Mitxel Murua
Elkar, Donostia, 2012

Hil ondoren kontalari

Ez da ohikoa gure artean idazleak hitzaurre bat idaztea bere obraren hasieran, are gutxiago hitzaurre horretan bere obrarekiko harridura adieraztea, baina horixe da Teresa Calok liburu honen lehen lerroetan egiten duena: «Ni neu harritu nintzen, beste inor baino lehen, neure burua nerabeentzako istorio bat idazten ikusi nuenean». Caloren ibilbidea jarraitu duenak badaki, batez ere, helduentzako antzerkiarekin eta telebistaren inguruko sailekin erlazionaturiko lanak idatzi dituela. *Marta ispiluaren aurrean*, aldiz, gazteei zuzendutako haren lehen liburua dugu.

Obra hau, nire ustez, paraliteraturan koka genezake. Anorexiaren gaia tratatzen duen idazlana dugu. Martak, hil ondotik, linbo antzeko toki batetik, egoera horretara nola iritsi den kontatuko digu, zer pentsatzen duen, zer sentitzen, zer egingo zukeen... eta Marta berri horren *alter ego* moduan «Eskeletoa» dugu, Marta gaixoa, gaixorik zegoenean pentsatzen, uste eta jokatzen zuen moduan jokatzen duen pertsonaia; eta oraingo Martari aurre egiten diona beste garai batean neskak gurasoei edo amonari egin zien bezala. Obran agertzen den hirugarren pertsonaia «Pisua» dugu; egunero Martari zuen pisuaren berri ematen ziona, zenbat argaltzen zen ospatzen zuena.

Teresa Calok, istorio hau kontatzeko, fikzio hau aurkezteko, antzerkiaren mundura jo du, eta antzezlan, bakarrizketa bat (nahiz eta tarte batzuetan Eskeletoa eta Pisua ere ageri), darabil Martak bere istorioa kontatzeko. Eta, gaiak izan dezakeen interes eta gaurkotasunaz aparte, horixe da liburu honek duen balioetako bat. Nola aurkezten zaigun istorioa, agertoki batean neska gazte batek publikoari zuzenduz osaturiko istorioa. Alegia, kontatzen duena interesgarria eta oso gai serioa izanda ere (gazteei irakasteko eginiko kontakizuna ere izan zitekeena, edo gutxienez irakasten duen literatura hori), liburu honetan bitxia eta berria dugu Martaren istorioa kontatzeko modua. Calok nola sartzen gaituen istorio bizi eta hunkigarri horretan errekurtso, kontalari gutxi batzuk erabiliz, baina, hala ere, ikuspuntu ezberdinak eskainiz.

Martak Interneten aurki dezakeen laguntzaz hitz egiten digu, anorexikoen arteko komunikazioaz eta animoaz, bai eta lagun bulimikoei buruz ere, zer egiten zuten... eta egunero amarekin, aitarekin, amonarekin izaniko eztabaidak, haien jokabidea arazoaren aurrean, eta abar. Baina egoera eta hausnarketa pertsonal horien ondoan, bada gizarteari eginiko kritika ere: «Bikini-operazioa. [...] Gure etxea aldizkariz bete zen, eta guztiek kontu bertsuak zekartzaten, jira eta buelta: kaloria gutxiko dietak, ariketak egiteko taulak, edertasunari buruzko gomendioak... "Gizendu gabe, jan". "Gal itzazu hiru kilo astebetean", "Manten ezazu tripa zapal", "Libra zaitez betiko laranja-azal zimur antiestetikoaz"». Izan ere, gure gizarteak duen edertasun-ereduak badu zerikusia liburu honetako gaiarekin.

Marta ispiluaren aurrean nobela interesgarria da. Anorexiaren gaia nahiko modu sinplean baina serioan planteatzen duen obra honek, gainera, bakarrizketaren teknika hurbiltzen du gazte literaturara. Istorioak kontatzeko modu berri, arin eta interesgarria eskaintzen du.

Xabier Etxaniz Erle